



2013KO AZAROAREN 8KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamahiruko azaroaren zortzian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes eta Inazio Estensoro Eskisabel.

Haizea Mendia Insausti eta Andoitz Garmendia Zubeldia zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2013ko urriaren 25ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2013ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 60 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HIRU MILA ETA BERROGEITA ZORTZI EURO ETA BERROGEITA HAMALAU ZENTIMO (3.048,54 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 507 zbk.dun esped.: zerbitzua egunean ordu erdiz murriztea, 2013ko urriaren 15etik aurrera, bere egoeran izandako hobekuntzarengatik. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %15a da.
- 28 zbk.dun esped.: zerbitzutik baja ematea, 2013ko urriaren 1etik, beste herri batera joan delako bizitzera.
- 13-11-06 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea, 2013ko urriaren 21etik. Zerbitzua astelehenetik larunbatera izango da, egunean ordu bete, eta laguntza pertsonalerako izango da. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %15a izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-



- 13-01-006 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu eta mantenimentu gastuetarako laguntzatik baja ematea urritik, udalerrri aldaketagatik.
- 13-01-012 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairurako laguntzaren zenbatekoa aldatzea, hilean 125 €tik 250 €ra eta etxebizitzaren mantenimentu gastuetarako 46,25 €ko dirulaguntza onartzea, urritik abendura, bizikide kopurua aldatu delako. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

IV.- JASOGAILUEN MANTENIMENTSU ZERBITZUAREN ESLEIPENA .-

Diputatuen Kontseiluaren 2011ko ekainaren 21ean jasotako eskuordetzaz baliatuz, Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko foru diputatuak 2013ko uztailaren 9ko foru aginduaren bitartez, ORONA S. COOP. (IFZ.:F20025318) enpresarekin Foru Kontratazioen Zentralaren bidez jasogailuen mantenimentu zerbitzua emateko esparru akordioa (X-12027) burutzea erabaki zen.

Lazkaoko Udalari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta zerbitzua interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikuluekin arabera, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Behin esparru akordioa izenpetu ondoren, zerbitzuburuak, 2013ko azaroaren 6an emandako txostenaren arabera proposatu du jasogailuen mantenimentu zerbitzuen kontratua, esparru akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea.

Hori dela eta, Sektore Publikoetako Kontratuen 30/2007 Legearen 182. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua ORONA S. COOP. enpresari esleitzea, izenpetutako esparru akordioaren ondorioetan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak onartzen ditu:

LEHENENGO.- "Foru Kontratazio Zentralaren bitartez energia elektrikoa hornitzeko esparru akordiotik" eratorritako kontratua (X12027) ORONA S. COOP. enpresari (IFZ.: F20025318) esleitzea, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.

BIGARREN.- ORONA S. COOP, N.I.F.:F20025318, enpresaren alde baimentzea eta xedatzea aurtengo ekitaldiari dagokion gastua, udal aurrekontuan, funtzional ezberdinetan, jasogailuen mantenimentu zerbitzuen gastua jasotzen duten kontusailen kargura.

HIRUGARREN.- Enpresa esleipendunarekin kontratua formalizatzea.

V.- ARERIAREN USTIAKETA ESLEIPENA .-

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2013ko urtarrilaren 11n egindako batzaraldian, Lazkaoko Areria Kultur Gunearen areto nagusiaren ustiapenaren zeharkako kudeaketaren esleipena egiteko kontratazio espedientea, hala nola prozedura ireki bidezko lehiaketaren deialdia egitea onartu zuen.



Lehiaketaren lizitazio iragarkia 2013ko irailaren 24ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Eskeintzak aurkezteko denboraldiaren barruan honako bi proposamen hauek jaso ziren:

- 1.- URBIETA&EGAÑA S.L.
- 2.- FACTORY LOGISTICA S.L.

Bi enpresak lizitaziora aurkeztutako dokumentaziotik eta eskatutako dokumentazio gehigarriaren azterketatik, kontratazio mahaiak erabaki du Factory Logistica S.L. enpresaren xedea ez datorrela bat lehiaketa honen xedearekin eta ondorioz lehiaketatik kanpo utzi du.

Lehiaketan onartua izan den enpresa bakarraren B eta C kartazalak ireki ondoren, kontratazio mahaiak Urbietta&Egaña S.L.ren aldeko esleipen proposamena egin du. Proposamen honen ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

- Urbietta&Egaña S.L.k Arerian digitalizatutako zine emanaldiak eman ahal izateko ekipamentua berak jarriko du, eta ekipamentu hori han izango da kontratu hau indarrean dagoen bitartean.

- Udalak esleipendunari ordaindu beharreko zenbatekoa urtean 34.380 € (BEZ barne) izango da.

Guzti honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, Areriaren ustiapen kontratua Urbietta&Egaña S.L.ri esleitzea erabakitzen du.

VI.- EUSKARAKO LAGUNTZAK.-

Euskara ikasteko eskoletara joateagatik dirulaguntza eskariak ikusi ondoren eta udalak honetarako jarritako baldintzen arabera Euskara, Hezkuntza eta Zerbitzuen Sektorera Batzorde Informatzaileak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, proposamena onartu eta espedientean azaltzen den xehetasunaren arabera 9 laguni guztira LAU MILA EHUN ETA LAUROGEITA BEDERATZI EURO ETA LAUROGEITA HAMASEI ZENTIMO (4.189,96 €) ematea erabakitzen du.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak puntuan direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

